

GUY HERAUD BAIONAN

ESPETXEAK

Aspaldidanik ezagutzen dugu euskaldunok Guy Héraud irakaslea eta adiskidea. Strasburgoko Unibertsitatean urte luzean aritu izana. Bionoko Pabekoen ari zaigu gaur laanean; eta ez Euskal Herriak urrun, beraz. Betidanik Euskal Herriarekiko izan duen jaiara hura, hurbiltasunean azkartu nahi izan balu bezala.

Eta ederki mintzatu zaigu Baionan joan den Maiatzaren 12an; ezin hobeki, nik uste. Etni-arazoak inork baino segurkiago ezagutzen dituenak («L'Europe des Ethnies» eta «L'Europe des Langues» liburuak lekuko) gai hori ukitu du gure aurrean; eta, bai tankera bai oporotasunez, liluratutik utzi ditu entzuzera joan zaizkion guztiak.

Etni-arazoak Europan barrena behar ez du, baina gorantz doazela esan du; alegia, etni-arazoak ez diren eskualderik gehienetan, jatorrizko etni-nortasuna galtzeko joararen kontrako pizkundea eta atxiki-nahia agertzen direla eskuarki. Etni-arazoak bizirik daude, hitz batez, Europan guztian. Edo, alderantziz ere esateko: etni-zapakuntzak eta kultur-inperialismoak bizirik diraute Europan, bai Mendebaldean bai Ekialdean.

Zergatik «etnia» hitza erantsiko nik? Ez ahal da aski «herri» hitza? «Herri zapaldua» eta «oligarquia zapaltzailea» ez direa aski? Galdera horien oihartzuna badantzut bazterretan.

Eta neure erantzuna, Baionan entzundakoen berritoki finkatuta, ez dut luzatuko ez dismulatuko: «etnia» hitza erantsi beharra dago; zeren-«ta beste herrien NORTASUNA eta HIZKUNTZA-BEREZITASUNA» hitzeko joera, ez baita ekonomi-molde edo giro honi edo hari itsatsirik, ekonomi-molde eta giro GUZTIETATIK AT BAZTEZ. Etni-arazorik ez duten herri zapalduak badaude: Portugalen, Arabian, Grezian. Herri-zapaketa guztiak ez dira beti etnikoak. Nahiz, alderantziz, etni-zapakuntzarik gehienetan etnia zapaldua ekonomiarekin eta politikarekin mailan ERE zapalduak egon ohi bada ere (ketxwattarrak, m a y a - kitxetarrak, bretnonak, kurdotarrak).

Honi buruzko galdera bat egin zaio, hain zuzen, Guy Héraud irakasleari. Berariaz eta argi bala egin, egin zaion bezalatsu emango dut hemen: «Batzuen ustez, ekonomia-kontratu merkatu-batasunak ekarri omen du nazioaren izana, eta ondorioz nazioetasuna eta abertzaletasuna. Sozialismoaren aldeko burrukan, hortaz, burgesiaren kontra jokatzeko eta sozialista iraultza burutzekoan, etni-zapaketa eta inperialismoa batera iraugiriko dira. Etni-zapaketa burgesiaren ekarria izan da; eta burgesia uzkalitzaen, beraz, etni-zapakuntzak oro ere burkutu dira. Nazio-burruka klase-burrukan aldia bat baizik ez da. Zer deritzazu zuk, Héraud jauna, teoria honi?». Horreraino, beraz, galdera.

Guy Héraud-en erantzuna ez da batere luzatu: «Teoria hori faltsutzat daukat» esan du. «Burgesi-arrastorik ez dagoen erresumetan ere —erantsi du, antz argituzapenez funtsuz— badaude «etni-arazoak eta kultur-zapakuntzak»; eta, sustraian, besteaz (beste gisa eta bestelakotasunean) ukatu-nahi berberak mamiatzen ditu jokabideak Mendebaldean eta Ekialdean.»

Xehetasun antz eman du, gorago esan dudana bezala; eta etni-arazoari buruz dauzen jokabide-desberdintasunak aztertu ditut xeheki. Dena hemen osoki azaltzerik ez dago.

Guy Héraud-en iritziz hitz gutxitara biltzekotan, nahiz klasearen eta etniaren OSOTASUNA («globalité» esan du frantsesez) honetan eta hartan antzeko izan, klaseen eta etniaren arteko desberdintasunak sakonak dira oso, bai gaurko ez-erari buruz bai etorkizunari buruz; etahonetxek azal dezake ongien beharbadar politika eta ekonomi-sistemetatik eta ez kultur-inperialismoa eta etni-desberdinekiko herra horiek bizirik egotea.

Beste hitz batez esateko: Héraud irakaslea ez da monista agertu, PLURALISTA baizik. Héraud irakasleak ez du, politika arazo guztien funtsuan, problema bakar bat somatzan, kapitalismoaren. Etni-arazoak badu, haren ustez, ekonomi-

-moldaketaren eta burrukaren mailakoa EZ DEN sustrai bat; eta, hortaz, nik berriki Gorka Knörri eman nion erantzun-mota berbera eman dugu Baionan.

Jakina: gaur Hegoaldean dagoen giroa ezagutu, hau esatea eta zenbaiten artean «superado» eta «burgués» agertzea gauza bera da. Badakit, eta ez atzo erreparatua. Baina horrela gerta dadin beldurrik ez nau neure iritzitik izpi batez ere aldaratuko. Egia eta moda gutxitan baitira elkarrekin joaten, eta nik, gaurko Hérauden irakaspanak gidari, lehenengoa zerbitzatu nahi baiduke.

Guy Héraud jakintsua etniaren BEREZITASUNA defenditu du; etniaren zertasuna, funtsa eta errotikako autoktonia; eta proposatu zion sasi-azalpen ximple eta dogmakoiaren faltsukeria salatatu deplauki.

Hots, egia hori, eta beste antz, azken bi mendeetan temakor, integrista eta fanatiko bihurtu zaigun herri zoritxarreko honetan esan behar da; atsekabe gertatuagatik ere, argi eta garbi mintzatu behar da.

Etni-arazoak eta klase-arazoak BI arazo dira, ez bakar bat; ez bata bestearen «fase» bat, eta ez horrelakorik ere. Burgesia desjabeturik ere, etni-arazoak egon daitezke; eta etni-arazoak konpandurik ere, klase-arazoak gaitzak egon daitezke. Gertaera ezagun eta ezin-ukatu-zo haur gogorazi du Héraud-jaunak Baionan; eta hori eskolastika zahar edo berriki nola ezkon ote daitekeen, ez da batere ene afera, eskolastikoena baizik. Hor konpon berak! Gertatzen dena, gertatu egiten da;

eta gertatzen denaren arabera aldatu behar dira sinesteak eta ideiak, eta ez alderantziz gertaerak ideien eta dogmen arabera faltsutu eta izkutatu. Dogmakoiaren joera hori ausarki salatu zuen Sartrek aspaldian («La Critique de la Raison Dialectique»).

Modako fededunak sutan jarriko dira lerro hauek hauek irakurtzean. Baina amorrario horiek ez dira gaurkoak. Pairatuak ditut. Eta agian libratuko da gure herria gurutzatut berriogandik! Ezin hobekiago azaltzen zuten dogmakoiaren jokabide hori Bertrand Russell zientzi-gizon bikoitza 1947an; eta neure egingo ditut haren hitz hilezkorrak: «Los sistemas dogmáticos presentan otras dos desventajas, a saber: implicar FALSAS CREENCIAS sobre cuestiones de hecho práctica; mente importantes; y suscitar la VIOLENTA HOSTILIDAD de quienes no comparten EL FANATISMO en cuestión...» Bazekien harek, bai, fanatismoa zer den.

Baina guk, euskaldunok, gaitz hori bertagotiki ezagutuko ez ote dugu beldur naiz.

Gure kondairaren ohore den Tuterako erlijio-pluralismo edo haren izpiritua, aspaldian suntsitu bide zen gure artean, ondikotz; eta haren ordez, fanatismoa dugu nagusi han eta hemen, behin eta berri-zun gailen, irakurleak dakien herrian bezalaxe.

Zorionak, beraz, Guy Héraud jauna, egia jator gogorazi diguzulako. Euskaldun pluralisten izenean, mila esker antz!

LARRESORO

OSTEGUN IZAN ZEN GIZONA

Izen motz bizi batek liburu oso batek baino gehiago balio du askotan jendeari pentsaerazteko. Izen-buru politak aurkitu ohi dira lilmetan, bai baitakite zabaltzaileek hortik asten dela diruaren emana.

Ikus esate baterako «Otzetik otz-eritako gizona» (zer nolako «otza» daiteke? Besterik gabe, zina joateko gogoa sortzen zaizu). «Desira izeneko tranbe bat» (eta «desira», deseoa duzu barrenen begiz jotzeko). «Zaldi zeritza gizona» (zer gizon klase ote da?). «Sekulan izan ez zen gizona», eta abar. Izen bitxi horietako zenbait etor ditzete Chester-ton-en «Ostegun izan zen gizona» nobela famatutik. Hau zaharagoa baita, esandakoen taxukoa eta polita, tentagarria.

Gizona ostegun? Zer nahasketa da hau? Irakurri egin behar, jakingo badugu. Batetik farregurea ematen du izen horrek, erokeria dirudi. Irakurri ahalean, eta arago irakurritakoan, badakigu ez dela txorakeria; Chester-ton-ek «zerbait» adierazi nahi digula, garrantziki «zer» bat, izkutua, sakona, amets antzeko gertaera eta jostaketaren itxurapean.

Pío Barojari asko gustatzen omen zitzaion «Ostegun izan zen gizona». Ez dakit non irakurri dudan hau, baina bete-betean sinesten dut. Zazpi gizon dira, zazpi. Munduan aurki ditezken trebe, bizkor, maltzur, arrikitsuuenak. Eta gainera anarkismoaren zuzendaritza nagusia eskuetan dutenak. Bakoitzari aste-ko egun baten izena damaiote. Hau «Astelen» duzu; bestea, «Astearte»; hirugarrena, «Asteazken...» Eta arrigarriona dena. Ustezko anarkista buru horietako batzuk (ala guztiak?) politziak dira, alajainak. Politi poliiki enteratzen gara «Astearte» (Gogol polakoa alegia) politzia dela, eta «Ostiral» (Worms irakaslea) ere politzia dela. Besteak zer ote dira?

—Zuk ba ahal zenekien Gogol guretakoak zenik?

—Nik? Ez alegia —esan zuen, urriturik, Syme-k. Zuk bai ala?

—Eta hiru gizona pentsatzea. Hiru zazpi artean borroka-numero ona da. Hiru polizi gizona jakin izan bagendun...»

Gerora ikastean dugu Dr. Bull bera, «Larunbat», politzietako zela. Nork esan behar? Lau hiruren kontra. Bazen ordea polizi gehiagorik ere. «Asteazken», eta «Astelen».

Filosofia liburuaz dugu, politzia nobela hainbat, «Ostegun izan zen gizona». Izan ere, zer da, zein da

«lgande»? Gizon gizen, aurpegi zabal bildurgarria, Buruzgia, gizona ote? Syme Scotland Yard-eko bere lanbide berrian artu zuenak ez ahal zuen menturaz «lgande»-ren antza? Esan izan den bezala, nobela honetan ez dago gaizkilerik, ez baitago gaizki-egiñik. Bi ahal, bi indar etsai, baiñan erregabe, txintxo, ia elkar maitatuaz, borrokari ari dire elkarrekin. Politika nobela da «Ostegun izan zen gizona». Bai-tarrak eta ez-tarrak guduakten dira zerbitzen billa, garbiri jakiteke zer den bilatzen duten hori. «Besteri» nahi dute, «besterik» izkutu, illun bat.

Politika obra bat da Schiller-en «Guillermo Tell» ere, Suizako giroz jantzia. Herri zapaldu batek kateak eten nahi ditu askatasuna lortzeko. Herri borroka da. Herria bera ari da hortan. Baiña borrokek artzen du gorputz Guillermo Tell-engan, hau herriaren irudia, ispillua, izpiritua egiten delarik. Salbatzen du semea eta salbatzen du herria. Iltzailleekin elkarre gabe ordea, ez baitu onartzen odol-ixurtzaileen jokoa.

Eugenio d'Ors-ek «Guillermo Tell» izendun drama bat idatzi zuen Schiller-enari erantzun gisa. Ors-en arauaz, ez askatzailea ez zapaltzailea ez dira ongi jabetzen beren ekintzaren zentuz eta ondorezetaz. Alderantziz, apizkoz gora ipiñi omen zuen Schiller-ena, matxinada garailletan nagusikeriaren alabeharra salatuz. Oker ez banoago, ez baitut bistan, honoko itz hauekin bukatzen da: «Ez dakigu ezer. Sekulan ez dakigu ezer.»

Churchill-ek behin esana da herri baten politikaz zerbaitek jakitea giza gaitza dela eta herri-errotiko politikaz zerbaitek jakitea berriz, litekeena gaitza. Eta beste behin, etsaiak ez direla betiko, ez adiskideak ere, gure interesak bakarra direla betiko. Izan ere, denborak aldatzen dira, problema berriak sortzen, lehengo grifak italtzen. Jendeak ez du erabakitzen gehienetan. Giroak, inguruak, jatorriak, eziketak, bizimoduak eragin gaitza dute giza izpirituan. Gazezen erlatibutasuna ikusten da, gizon guzkieko behar den neurrigabeiko erreakzio nabarmenduz. Ez diot hau inor zuri, gutxiago zuriat, asmo, baizik egia bere osotasunean ikusi gogoz. Pentsa, adibidez, Alemaniaren gertatuaz Hitler-garaiari. Jar delan norbera haien tokian. Golekoek pakea bazieten, denak pake-zela, gerra bazieten, denak gerra-

Espetxei eskamitako alde dugu «Hechos y Dichos»-en maiatzeko zenbakia. Beste idazlan batzuren artean Antonio Beristaini egindako elkarrizketa daker betean. Unibertsidade askotan izan da irakaste: Deuston, Valladoliden, Madrillen, Oviedon. Gaurrengun Donostiakoan aurkitzen da. Batzar askotan parte artu du. Europako espetxe asko ikusi du. Bai espetxeratuakin eta bai hauen zaintaldeekin asko itzeigun du.

Gauza lotsagarri asko ikusi duela esaten digu. Adibidez, 16 urteko mutikoaren egoera lotsagarria: 40 egun gela txiki batean, bakarrik, inorekin itzeigin gabe, ezer irakurri gabe, zigarrorik erretze gabe, eseritzeko aukirik gabe, berogarririk gabe. Edo beste lotsa-ita harena: egin beharrezko «inkai» guztiak besteren aurrean egin behar izaten zituen. Edo izkuntzarik ez zekien erbesteko langile harena. Edo emaztearekin eta seme-alabekin inleunt batzuk besterik ezin itzeigin zuen aita harena: astean edo minutu batzuk eta bera bi sarealdiren artean zaintzailea zutelarik. Eta itzeiginzarekin itzeigin nahi zuenaren ere zaintzailearen aurrean egin behar izaten zuten.

Espetxeratua ez dela pertsona bezala aintzen, gauza bezala baizik, dio. Arrigarrira dela Elizaren jokabidea ere, aitortzen du. Hontaz itzaldi eta gotzai-agiri gutxi ezagutzen duela esaten du. Ez dela Eliza Ebanjelioak aipatzen dituen espetxeratutaz behar aintbat mintzatzen, dio.

Zoritxarrez egia aundia, noski. Arazo asko aipatzen du Elizak, baina hontaz oso gutxitan edo agian behin ere ez zaigu mintzatu. «Vida Nueva»k maiatzaren 14koan dioenez izan da bai 352k izenpetutako eskutitz bat. Baina ez dirudi Gotzaiak aintzakotzat artu dutenik.

Ahaztu baizagu ere espetxeratua pertsona da. Lehenbait lehen giza eskubid eguztien jabe izan behar duen pertsona. Ahal denik azkarren berritoki giartentxeratu eta itatsis behar duen pertsona.

Espetxeak zigortegi baino gehiago sendategi izan behar du. Ez litzazkioke espetxeratuari, lanerako, lan-sarirako, seguru-tarako, oporradirako eta familiako arrematarerako eskubideak kendu behar. Eskubide hoiek aitortzen dizkien leku gutxi da munduan.

Oso motz aurkitzen dira espetxeratuak leku askotan. Ez dute behar bezalako elarik, janik, lanik, jolastegirik, arrematik. Ez dira gutxi, bizitzaz naskaturik beren burua iltzen dutenak. Barruan sartzen dituzten ia gazte denak bi urterako aragikeriara eta likiskeriara behartzen dituzte lehendik daudenak. Asko dira burutik nahasten direnak. Asko gaitsozten direnak.

Benetan lotsagarria da giarteko espetxeratuak egiten duena. Ez dezakegu honela jarrai. Giartearantz arrikigarriri diren gizon-emakume hoientzat zerbaitek egokiagorik sumatu beharrean gude.

Giarteko ahal duen denborarik gutxienean askatasunik gabe edukitzeko egingizuna du. Ahal duen azkarren kaleratzeko egingizuna. Birtarlen pertsona bezala erabilzeko egingizuna.

Erantzunkizun ikaragarria dugu.



Zuzenadaria:
MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burladapa-Maplana).
Donostia: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Azterrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez geldetu

Salmetan (ale bakoitza) 7 pezeta

Irarkola:
«Gráficas Navasal»
A. Adoain, 1 IRUIREA
D. L.: NA. 80-1963

EGUN EGUNEKOA

Batasuna da, hain zuzen, euskaldunen goagan mementu honetan dagoen asmo bakkarra.

Batasuna lortu nahi dugu bai, mila aldiz aipaturiko euskaldunen batasuna.

Halabainan, hori esatea ez da aski, hori denok badakigu, kakaio hau da: nola egin.

Hortarako errealmisimo apur bat behar dugu. Orain ez dago batasunik eta bi egun-etan ez dugu benetako batasun bat egingo. Deus baino lehen batasunaren oinarriak behar dira egin, eta gaurko lehenbiziko oinarria hau da: euskaldun zein den eta zein ez den berezi.

ren alde. Nor errudun? Nork arritobatzeko gai? Kontopozteko eta batzeko baino ixurriago eta emanagoak gara ezta baldarako eta aserrako. Hauze bai politika itsua. Elkartzeko ahalmendin indartzea komeni da, aitzitik. Lagunak ugaltzea. Ona eta zuzentasuna dotozen lekutik datozela begi argiz artea. Euskal bizitzegia behar dugu, ez Euskal ilerria. Egungo gaitza egun senda delilla. Bi-har lanik aski izango duguta bi-harkeokin.

Nafarroako Forudun Diputazioa hor dago tente, zorionean, bereari eusteko, euskerari buruz ere. Orain gutxi, euskeraren aldeko erabaki ederra artu du, Osasuna eta erakutsia Nafarroatik datozkigu. Txalo gogor nafar agintariei. Bide hortatik Nafarroa ez du ezer gaitzerik. Aberatsagoa eta mardulagoa bhurtzen da. Nafarroa nafaragoa,

bere jeno eta nortasun eta historiarri dagokionez. Bataiotan jaioberriak, eztaietan ezkoberriak eta illetetan ilberriak izan nahi duten horietakoak ez gaitzitu. Ospea ongileari beti, eta bihotz barrenbarrendik senidea delarik.

Antz aldez bizia bilakatzeko da asma-lan guztiak baino arrigarririk eta oinarriago. Filmek bezala, ustegebeko gertakariak dakarzikigu. Amiltegi lartzak paradisuari. Larrosa ezeak basamortuan.

Zein da egiazki anarkista eta zein politzia? Non da askatzailea eta non zapaltzailea? Askotan ez dakigu ezer. Buruz eta zuhurtasunez, emari eta eskuazabal ibilli behar. Baldin honela bagabilliza Euskal-herria gerta daiteke «Otzetik etorri zen herria» eta «lgande izango den herria» ere.